

## UPV/EHU<sup>n</sup> SORTUTAKO HONDAKIN TOXIKOAK ETA ARRISKUTSUAK

### LABORATEGIETAN PRODUKTU KIMIKOAK ETA HONDAKIN ARRISKUTSUAK BILTEGIRATZEKO GOMENDIOAK

✓ **Erreferentziak araudia:**

- Produktu kimikoak biltegitzeko araudia → 379/2001 ED - 2016/2004 ED - 105/2010 ED
- Segurtasuna laborategian: produktu kimikoak biltegitzea → Prebentzioko ohar teknikoa – NTP 725

✓ **Biltegitatu** produktu kimikoak eta hondakinak **bateragarritasun kimikoaren** eta tipologiaren arabera. Substantzia kimiko guztiak ez dira haien artean bateragarriak, eta elkarrekin biltegitatzean erreakzio bortitza sor daiteke; hortaz, substantzien arteko bateragarritasuna ezagutu beharko da biltegitatu aurretik.

	+	-	-	-	+
	-	+	-	-	-
	-	-	+	-	+
	-	-	-	+	0
	+	-	+	0	+

+	Se pueden almacenar juntos
0	Solamente podrán almacenarse juntos, adoptando ciertas medidas
-	No deben almacenarse juntos

✓ **Adostu** hondakinetarako erabilgarri dauden **biltegitatze puntuak**: barruko aretoa, areto erantsia, areto berezita... Saihestu laborategian bertan biltegitatzea.

✓ Aplikatu **biltegitatze teknikak**: apalak, irlak, segurtasun armairuak (batez ere produkturik arriskutsuenentzat –sukoiak, kantzerigenoak...-).



✓ **Ez** biltegitatu hondakinaren ontzia **eskuz hartzeko zaila den altueran**.

✓ **Ez** biltegitatu hondakinak pertsonak edo ibilgailuak **pasatzen diren lekuetan**, eskailera baoetan, atarrietan edo garbiketa getetan. Saihestu hondakinak lurzoruan metatzea.



✓ Biltegitatu apalen **behealdean bolumen eta pisu handieneko** ontziak.

✓ **Ez jarri hondakinak laneko gainaldeetan**. Erreaktibo kopuru minimoa jarri laneko gainaldeetan kokatutako apaletan.

✓ Ez jarri produktu kimikoak edo hondakinak **eguzki argiaren eraginpean**.

✓ Antolatu **atxikitze kubetak**, ahal den heinean.

✓ Garraiatu hondakinak **orga egokietan**.



**Zuzenean hustubidera isurtzea ez da hondakin arriskutsuen kudeaketa zuzena!**